

375/2025 EBAZPENA, ekainaren 10ekoa, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zuzendari nagusiarena, "Solaskide 2025-26" programa hezigarriaren deialdia onartzen duena Nafarroako A, B eta D ereduetaiko ikastetxeetako Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleentzat, 2025-26 ikasturtean.

Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuak txosten bat aurkeztu du, deialdi hori onartzea proposatzen duena. Gehienez ere 125 elkarrizketa-talde egonen dira, eta 18 saio talde bakoitzeko, 2025-26 ikasturtean.

Programaren helburua da Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako A, B eta D ereduetaiko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetakoko eta Batxilergoko 1. mailako ikasleen euskaraz hitz egiteko gaitasunaren garapena indartzea, arestian aipatutako 2025-26 ikasturteko eskola-aldietan.

Horretarako, Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasleek taldeko ikasle guztiak banatuko dituzte edo talde osoari hizkuntza aditu batekin batera arreta emanen diote. Banaketa egiteko, taldeak 12 ikasle izango ditu gutxienez. Irakasleak adituarekin batera taldea zaintzen badu, taldea 30 ikaslekoa izango da gehienez ere. Irakaslea ez da inola ere irakaskuntza-ordu horiek emateetik salbuetsiko.

Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 245/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

1.- Onartzea "Solaskide 2025-26" programa hezigarriaren deialdia, Nafarroako A, B eta D ereduetako ikastetxeetako Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleentzat. Programa 2025-26 ikasturtean eta ebazpen honen eranskinean deskribatuta dago.

2.- Ebazpen hau eta bere eranskina www.educacion.navarra.es (Hezkuntza-Berriak) eta www.navarra.es (Tramiteak) helbideetan argitaratzeko agintzea.

3.- Deialdi honen eta berau aplikatzeko administrazio-egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako Kontseilariari, hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazi, argitaratu edo jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

4.- Ebazpen hau eta bere Eranskina Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuari, Hezkuntzako Ikuskapenaren Zerbitzuari eta Euskara Atalari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta hogeita bosteko ekainaren hamarrean.

HEZKUNTZAKO ETA LANBIDE
HEZIKETAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Gil Sevillano González